



STEE-EILASek helegitea aurkeztu dio LOEren garapenari erlijioaren irakaskuntzari buruz, Auzitegi Gorenean

Joan den otsailaren 7an STEE-EILAS sindikatuak helegite bat aurkeztu zuen Ley Organica de Educación delakoaren garapen dekretuen kontra erlijioaren irakaskuntzaren arautzeari dagokionez. Helegitea Auzitegi Gorenaren kontenzioso administratiboaren hirugarren aretoan aurkeztu zuen Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuak. Zehazkiago **2006ko 1513, 1630 eta 1631 errege Dekretuen kontra jarri du helegitea STEE-EILASek**, Lehen hezkuntza, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hizkuntzako gutxienezko irakas edukiak ezartzen zituztenak. Errekurtsioa Confederación de Sindicatos de Trabajadores de la Enseñanza (STEs) eta Unió Sindical de Treballadors i Treballadores de l'Enseyment de Catalunya (USTEC) sindikatuekin batera egin du STEE-EILASek, haiekin mantentzen baititu lehentasunezko harremanak.

STEE-EILASek uste du euskal gizarteak hezkuntza sistema diseinatzeko eskubidea duela, gure biztanleen behar zehatzak aseko dituen hezkuntza sistema eta alor honetan eskuduntza eksklusiboak izango dituen kanpoko inposizioarik gabe. Ildo horretan, gure ustez ez LOEk berak ezta lege honen garapenean erlijioaz egin den arautzeak ez diote erantzuten euskal gizartea eskatzen ari denari.

Jakin badakigu gai oso berezi baten aurrean gaudela. Egungo gizarteak aniztasun itzela du bere baitan eta beraren ezagutza eta onarpena edozeinen jokoera demokratikoaren froga da. Gu, ideia eta jarrera ezberdinei eusten diotenenk merezi duten erabateko begirunetik zuzendu nahi gatazka hezkuntza komunitateari eta, oro har, euskal gizarteari, eta sinistuta gaude ez litzatekeela izango bidezkoa “tabu”-tzat hartu izan diren gaiak heldu eta eztabaidatu gabe uztea. Gainera datorkigun aldaketan garai honetan ezinezkoa da edozein gai ixtea behar duen hausnarketa egin gabe, baldin eta sistemari ezinbesteko iraunkortasuna luzerako eman nahi badiogu, behintzat.

STEE-EILASek ez du onartzen eztabaida ezina izatea erlijioa curriculumean sartzea, ohiko eskola ordutegiaren barruan ematea edota ikastetxe guztiek eskaini behar izatea, LOEk ezartzen duen bezala. Lege hau LOEk indarrean jarri zituen ondorio kaltegarriak saiakera xumea baino ez da izan baina eliza katolikoaren boterea hain da handia, gaur arte ia inor ez dela ausartu desadostasunak berari adierazten. Bere burua ezkertiarzat duen gobernu batek alferrik galdu du abagune historikoa aurrekonstituzionala den estatus pribilegiatuarekin amaitzeko.

Gure ustez materia bat curriculumean sartzan baldin bada, markatutako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen delako da. Eta hala bada, ikasle guztiek formazio berbera jaso beharko lukete: eduki berberak ikasi eta irizpide berberak erabiliz ebaluatuak izan, baina hau ez da gertatuko. Nortasunaren garapen osoa da hezkuntzaren helburua, beti ere elkarbizitzarako printzipio demokratikoak errespetatuz eta bai eskubideak bai betebeharrak denen artean onartuz. Garrantzitsua da ikasle guztiek balore guztiak ezagutzea iritzi erlijiosoen gaineratik. Estatu laiko batean, printzipio eta eskubide bateratu horiek gizabidezko izaera dute, eta izaera akonfesionala. **Askotan, asmo txarrekin gehienetan, erlijioaren irakaskuntza eta baloreen transmisioa lotzen saiatzen dira. Etikaren jabetza ez dagokio erlijioari.** Adostasun zabaleko etika unibertuala badago, giza eskubideen adierazpen ezberdinetan islatzen dena eta ez du erlijio oinarrikerik behar.

Ordutegi barruan sartzea bidegabekeria da ikasgai hori hartu nahi izan ez dutenentzat. “Adecuada atención educativa” delakoren bidez zigortu egiten dituzte, baldintzatutako ordutegiak ezarriz. STEE-EILASen iritzi erlijio konfesionalaren irakaskuntza eskolatik ateratzeak ez du, inondik inora, erlijio askatasunaren eskubidea zapuzten, eskubide hau familia eta elizaren bitartez gauzatzeko aukera izango lukeelako.



Ikastetxeak ezin dira izan erlijio baten aldeko doktrinamendua egiteko lekua eta are gutxiago era demokratikoan onartutako akordioen edo konbikzio sozialen aurkakoa denean dotrina hori. Adibide gisa honelako gaitan: emakumearen zeregina gizartean, abortatzeko eskubidea, dibortzioa, HIESaren aurkako borroka edo sexualitatearen adierazpen modu ezberdinak

Gero eta nabarmenago, etnia eta kultura anitzeko gizartea da gurea, eta halako gizarte batean **eskolaren zeregina gizartearen egituratze soziala bultzatzea da. Bereizten gaituen kontuetan baino gehiago, batzen gaituen kontuetan hezi behar du eskolak.** Eskolak ezin baditu bultzatu ezberdintasun sozialak, ekonomikoak eta linguistikoak, zergatik onartu behar dugu talde horien ezberdintasunak eta sinesmen moduak bultzatu behar ditugula. Interes partikularren aurka eta gizarte kohesionatu baten alde, proiektu anitzak nahi ditugu gure eskoletarako, ez anitz proiektu.

Elkarbizitarako baloretan heziko duen eskola defendatzen dugu, horretan oinarritutako curriculumak izango delarik Hezkuntza Proiektuaren ardatz nagusia. Lehentasunak birdefinitu behar dira, eta edukien aurretik baloreak bultzatu. Lehentasunak birplanteatu behar dira hezkuntza sisteman, orain arte honek edukiak baloreak baino gehiago lehenestu baititu. Ikasgai guztietatik egiteko lana da hau. Horretarako, helburuetan, programazioetan eta materialetan txertatu beharko da baloreak lantzearena. Irakasle bakoitzak bere egin beharko du eginkizun hau, ezagupenen transmisore ez ezik zeregin oso zehatzak dituen “hezitzaile” dela kontuan izanik. Jakina, lan horretarako motibatua, ondo antolatua eta era egokian prestatua izan beharko du irakasleak.

Gauzak horrela, **irakaskuntza publikoan, eta erlijioari dagokionez, neutraltasuna da bide bakarra era bateko orientazio ideologikoa duen ikastetxea aukeratu ez duten gurasoen eskubideak ziurtatzeko.** Beraz, guztiz onartezina da administrazioak konfesio katolikoaren alde egiten duen diskriminazioa. Eta ez bakarrik beste erlijioekiko egiten duena, baita ere beste hainbat arlo edota materiarekiko egiten duena:

- Administrazioak “pribatizatu” egiten du zerbitzu bat eta, horrela, curriculumaren diseinua eta materialen aukeraketa beste instituzio baten esku uzten du, inolako gain begiradarik edo kontrolrik gabe. Eta hau ulertezina da.
- Ez du irizpide berbera erabiltzen ikasle talde bat osatzerakoan edo familiek eskatutako materia bat baimentzerakoan. Hala, beste materia guztietan gutxieneko taldea hamahiru ikasle osatua izan arren, erlijioa emateko aski da familia bakar batek eskatzea. Ezin dugu, inolaz ere, jokabide hori onartu.
- Irakasle gehienek irakaskuntza publikoan lanean hasteko hainbat baldintza bete behar izaten dituzte, besteak beste, irizpide objektiboak aplikatu ondoren eskuratutako puntuazioa izan behar dute (esperientzia...). Beste irakasle batzuk, ordea, gotzaindegiak zuzenean edo “behatzez” izendatuta aurkitzen dute lana. Baina gerora, mesedegarri dirudiena kaltegarri bihur liteke, izan ere kolektibo honek, nahiz eta lanpostu bera eduki, beste patronal bat baitaika (eta askoz ere indar eta babes gutxiago).

Donostian, 2007ko otsailaren 9an.

STEE-EILASeko Nazio Batzorde Iraunkorra

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C

BIZKAIA: Nikolas Alcorta 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)

01001 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

📠 945 14 43 02

📠 944 10 13 60

📠 943 45 36 27

📠 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org